

GUGGENHEIM BILBAO

IKASTETXEENTZAKO PROGRAMAK: 2023/24 IKASTURTEA

Artearen eta bere balioen bidez inspiratzea eta ikuspegi berriak zabaltzea

2023/24 ikasturtean zehar Guggenheim Bilbao Museoak arte moderno eta garaikideko funtsezko zenbait artistaren obra erakutsiko du, Pablo Picassorekin hasita. Hala, ikasturtearen lehenengo zatian, artista horri eskainitako erakusketa haren eskulturak behatu ahal izango dira, giza gorputza irudikatzeko erabili zituen ezin konta ahala estilo biltzen dituztenak. Hurrengo erakusketa, azarotik aurrera, Gego artista germaniar-venezuelarrari eskainitako atzera begirakoa izango da, eta agerian utziko du egile horrek abstrakzioz zuen ikuspegi berezia, egitura linealen, forma organikoen eta espazioaren inguruko ikerketa sistematikoen bidez garatu zuena.

Ikasturtearen bigarren zatian, Giovanni Anselmo artista italiarraren lan iradokitzailean sakondu ahal izango da. Artista naturara eta bere materialetara hurbiltzen da, ikusezina dena ikusaraziz.

Bestalde, June Crespori eskainitako erakusketa artearen arloko ikerketa-ildo garaikideen artea hurbiltzeko aukera emango du, eta Museoaren

espaziorako propio sortu duen instalazioa ere ikusi ahal izango da bertan. 2024ko otsailetik aurrera, Pop artea ardatz duen erakusketa batek ibilbidea egingo du kontsumo-kulturaren aurrean artista gailenek, esaterako Roy Liechtensteinek eta Andy Warholek, emandako erantzun artistiko anitzetatik.

Aurkezpen horiek aukera paregabea dira hezkuntzaren testuinguruan curriculumeko zeharkako gaien ikaskuntza errazten dutelako, eta artearen historiaren testuinguruan ikasleek mugimendu artistikoak, teknikak, egileak eta joerak ezagutzeko bide bat direlako. Gainera, bizi garen munduan tokikoaren eta globalaren arteko elkargunea hobeto ulertzeko aukera emango dute.

Gure helburua artearen eta bere balioen bidez ikuspegi berriak inspiratzea eta zabaltzea da. Ikastetxeentzako programazio dinamiko bat prestatu dugu, ikastetxeek Museora bertaratuta eta online parte hartu ahal izan dezaten behin edo gehiagotan ikasturtean zehar, lau

hizkuntzatan eta hezkuntza-maila guztietarako. Horrela, zure ikasleek eta zuk zuen erritmoan gozatu dezakez arteaz.

Egizu bat Hezitzaileen Community-rekin, eta parte hartu gure programetan*

Irakasleek osatutako komunitatearen bidez ikastetxei eskaintzen zaizkien Museorako bisitaldietara izango duzu sarbidea, baita zuretzat diseinatutako eduki espezifikoei ere. Doakoa da.

EMAN IZENA HEMEN

*Ezinbestekoa da Hezitzaileen Community-ko kide izatea programetan parte hartzeko.

Ikasle eta irakasleentzako jardueren babeslea

 **Occident**

NOLA HURBIL ZAITEZKE MUSEORA?



MUSEORA BERTARATUTA

- **ZURE IKASLEENTZAT:**
IKASTETXEENTZAKO BISITALDIAK
BISITA AUTOGIDATUAK
- **ZURETZAT:**
ORIENTAZIO-SAIOAK
DOAKO SARBIDEA ERAKUSKETETARA



IKASGELATIK ONLINE

- **ZURE IKASLEENTZAT:**
BISITALDI BIRTUALAK
BISITA GRABATUA
IKASTARO-GIDAK
- **ZURETZAT:**
ONLINE HITZALDI-TAILERRAK
GIDA DIDAKTIKOAK

AURREZ AURRE

ZURE IKASLEENTZAT:

Museora ikasleekin etorrita (gehienez 25 ikasleko taldeak) honako hauen bidez:

IKASTETXEENTZAKO BISITALDIAK

Parte-hartzea bultzatzeko ikuspegiarekin diseinatutako ibilbideak, Museoko hezkuntza-arloko taldekideek dinamizatuak. Haur eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide-heziketako eta HHEko ikasle-taldeentzat. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez

Ordutegiak: 10:30 eta 12:15, asteartetik ostiralera

Iraupena: 90 min. Prezioa: 40€ taldeko

BISITA AUTOGIDATUAK

Zuen ikasleekin Museora egindako bisitaldia dinamizatu nahi duzuen hezitzaileentzat.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide-heziketako eta HHEko ikasleentzat

Ordutegiak: 11:00, 13:00, 15:00 eta 17:00, asteartetik ostiralera;

eta 13:00 eta 15:00, larunbat eta igandeetan. Doakoak

ZURETZAT:

ORIENTAZIO-SAIOAK:

Erakusketa bakoitzerako bisitaldia prestatzeko, Museoaren hezkuntza-arloko taldekideekin batera.

Erakusketa bisitatzea barne:

Urriak 24 eta 26, 2023: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*

Azaroak 14 eta 16, 2023: *Gego. Infinitua neurtzen*

Otsailak 20 eta 22, 2024: *Giovanni Anselmo: Paisaiarantz*

Martxoak 5 eta 7, 2024: *Pop Art*

Apirilak 16 eta 18, 2024: *June Crespo. Baskularra*

Ordutegia: 17:00; astearteak, euskaraz; ostegunak, gaztelaniaz.

Iraupena: 90 min. Doakoak

DOAKO SARBIDEA ERAKUSKETETARA

Erakusketak zure kasa bisitatzeko:

Urriak 31 eta azaroak 2, 2023: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*

Azaroak 21 eta 23, 2023: *Gego. Infinitua neurtzen*

Otsailak 27 eta 29, 2024: *Giovanni Anselmo: Paisaiarantz*

Martxoak 12 eta 14, 2024: *Pop Art*

Apirilak 23 eta 25, 2024: *June Crespo. Baskularra*

Ordutegia: 16:00etatik 19:00etara



Erreserbatu hitzordua eta zatoz
ZURE ZAIN GAUDE!

IKASGELATIK ONLINE

ZURE IKASLEENTZAT:

BISITA BIRTUALAK INGELESEZ: MUSEOA ZUZENEAN

Zuzeneko konexioa bideo-dei baten bidez, zure ikasleak Museoko espazioetan barrena birtualki sartzeko eta artelan enblematikoak ezagutzeko. Bigarren Hezkuntzara, Batxilergora, Lanbide-heziketara eta HHEra zuzendua. Ingelesez

Urriak 26 eta azaroak 23, 2023, 10:00

Iraupena: ordu 1. Prezioa: 20€ ikasgelako. Erreserbatu hitzordua eta konekta zaitetz ikasgelatik

BISITA GRABATUA: EZAGUTU FRANK GEHRYREN ERAIKINA

Frank Gehryren sortze-prozesuari eta Guggenheim Bilbao Museoaren eraikinari buruz bideoz grabatutako bisita. Material gehigarriak barne hartzen ditu, tailerrak eta sormen-jarduerak antolatzeke adibideekin. Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide-heziketako eta HHEko ikasle-taldeentzat. Ingelesez

Iraupena: 30 min. Prezioa: 15 € ikasgelako

GIDA-IKASTAROAK

Bildumako artelanei buruzko gida-ikastaro didaktikoak, artea ikuspegi berri eta anitzetatik lantzeko testuak, multimedia-materialak eta sormen-jarduerak barne hartzen dituztenak. Tresna malguak dira, ikasleak modu autonomoan nahiz taldean lan egitera animatzen dituztenak. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez

ZURETZAT:

ONLINE HITZALDI-TAILERRAK

Online egingo den hitzaldi-tailer ziklo honetako saioetan artearen pedagogiarekin eta ikasgelan duen aplikazioarekin lotutako hainbat alderdi eta gai jorratuko ditugu. Doakoak. Eman izena alde zurretik

PEDAGOGIA, ARTEA ETA...PAISAIA

Hitzaldi-tailer honetan, paisaiaren irudikapena gure inguruneari eta naturguneari begiratzeko modua eraldatzeko bide gisa aztertuko dugu. Ikasgelan ikasleekin tailerretan erabiltzeko artelan eta jardueren adibideak proposatuko zaizkizue. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleentzat

Azaroak, 15, 2023, 17:30

Iraupena: 90 min. Gaztelaniaz

SORMENA, ARRETA ETA ADEITASUNA

Oraingo honetan, irakasleei zuzendutako emozioen kudeaketari buruzko saio bat landuko dugu, adetasunaren eta sormenarekin dituen loturen bidez. Saio horretan, irakasleentzako eta ikasleentzako tresnak aurkeztuko ditugu. Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleei zuzendua

Azaroak 29, 2023, 17:30

Iraupena: 90 min. Gaztelaniaz

GIDA DIDAKTIKOAK

Erakusketei eta Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumari buruzko baliabideen biltegi zabala hainbat materialekin: argazkiak, bideoak, sormen-proposamenak... Erakusketak bisitatzeke gomendatutako ibilbideak sartzen dira. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat

Haur Hezkuntzarako material didaktiko espezifikoak ere sartzen dira

Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez

Edukiak eskuragarri Museoaren webgunean



ERRESERBAK

<https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/ikasi/irakasmundua>
Tel.: 944 359 090

INFORMAZIOA

educacion@guggenheim-bilbao.eus
Tel.: 944 359 067. Astelehenetik ostiralera,
9:00etatik 14:00etara